Huron le 9/ 3/58

yaun aphez maitea

Egun hartzen dut memento bat ene berri zonbeiten zuri igortzeko. Beraz ni biziki ontsa niz eta pentsatzen dut ene letrak gisa berian hatchemanen zitila orai eta bethi ni biziki kontent niz zuk igortzen datazun kaseta Herria maiteaz ez tut erraiten ahal zer plazera duan astehart gaizetan izaiten dualarik kaseta alabainan dakizun bezala ene kaseta Herria Par Avion heldu da zuk hortik igor eta hiru egunen buruko hemen da. Segur bertze hanitz ere emaiten dut ene kaseta nihaurek leitu eta denen gustatzen da kaseta hori. Bainan yaun aphez maitea badut berri bat zuri erraiteko duela hilabete bat nik igorri nuen zure adrezarat lehengo lekhurak 8 rue Jacques laffitte hartarat letra bat hartan tzen Kaliforniatik zonbeit berri nik igorri artikulua eta nahi nuke yakin zendako ez duzun artikulu hura kasetan ezarri astè guziez kasetan leitzen dut Kaliforniako eskualdunek

igorri artikuluak eta ene artikulua ere
berdin on izen kasetan ezartzeko hori dut
yakin nahi eta galdegiten dautzut letra hura
eskuetan baduzu ezar dezazun artikulua
kasetan inahala fite eztu balio kasetaren
abonamendua hartzia gero guk igortzen
ditugun artikuluak ez ezartzekotz badu berdin
kasetak lekhu frango bethi algeriako edo
afrikako berriak igortzeko orde hemendik
igortzen ditugun artikuluen dako izaiten ahal
da lekhu pochi bat. zonbeit aldiz badia
kasetan berri batzu deus ezpaitute balio
horiek doaika kasetaren bethetzeko ezartzen tuzte
eta gero guk igorri artikuluak hek bethi gal
lekhurik ez. yaun aphez maitea barka
zazu pochi bat kechetu baniz bakanik
hori dut yakin nahi hea zer gisaz eztuzu
ene artikulua kasetan ezari nik lehen kolorado(e)
igorria ezari zinen kasetan eta undarekoa hori
ez. Hortakotz yaun aphez maitea galdegiten
dautzut eni bi lero igor ditzazun nik
yakiteko zer gertatzen den. Beraz zure berrien
beha nagolarik goraintzi

Mesn François Goyhenetche
P.O. BOX 458
Huron California U.S.A

Goihenetxe, François
Huron

Kalifarniatik zonbeit
herri

Badu yada nik dakita zonbat dembora kaseta herrian leitzen duala aste guziez hemengo eskualdunek egin artikuluak?
Eta azkenik yuanden hilabetearen 30ean bertze bi artikulu lehenbizikua zonbeit etsemplu Ameriketarat yin nahi luketen gazteri sinadura J.P.B. Harek ditu bere artikuluan egiak erraiten harek erraiten duen bezala dira hemen artzainak? Bethi eran behar dira egiak eta har eta espantu edo guzurrik denak egiak dira? Gero bigarren artikulua sinadura JAN-BATTIT. harek berriz erraiten zuen hadirela zonbeit ederki zakuan sartiak nik ez dakit muthiko hori nor den ez eta ere nun den Bakarrik nik eranen dakat zakuan sartua hada bere falta duela. Hemen lekhu batez kontent ez denak zortzi egun emaiten dazko nagusiari eta oraino erraiten zuen hortik hunat abian dien gazteri ontsa gastako dela hunat yinik hori hasteko gezur ederra Kalifarnia huntan artzainek bizi ederra emaiten dugu yateko eta edateko nahi tun guziak arno hat hauta fresko freskoa

igande guziez oilaskua eta gero hemen
bethi yenden artean gira eskual herriko
artzainak bezala? Eskualde ~~hatek~~ hatetik
erebidia dena otaa gero laborariak lanean
karaskan beren machina handiekin dai
doia zortzi oren iten duzte hemengo
laborariek eta beren orena finitu eta oraino
iduzkia gora da eta gu artzainak her heha
Horiek hola orai nik eranen dut bertze berri
bat orai duela lau urthe gu yin ginen
8 eskualdun Californiarat geroztik denek elgar
ikusi dugu eta segur eztu dalurik hunat
yinik eta denek badugu sos ederra ina?
Eskual herriko gazte maiteak halinbada zuen
artean zonbeit hunat yiteko ideia duenik
yin gostuan heldurik gabe eta har muthil
batek urthean ~~nagt~~ irabazten duena hemen
eginen duzie hilabian osagarriak eta yainko
maiteak lagunduz eta hemen sernahi
eskualdun hatchemanen duzie? Beraz yin gostuan
Huntan finitzen dut ene artikulua eskual
herri guziari gorantzi igarriz

California le 7/12/58

L. A